

BeasainBHI5

50. urteurreneko jardueren hasiera

Apirilaren 12an, Igartzako Jauregian eman zaie hasiera Beasain institutuaren 50. Urtemuga ospatzeko jardueri. Ekitaldian Aitor Aldasorok (Beasaingo alkatea), Gema Gonzalez de Txabarrik (Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaria), Josune Lopetegik (Beasain BHIko zuzendaria) eta Josu Agirrek (Beasain BHIko zuzendari ohia) hartu zuten parte.

Aitor eta Gemaren agurraren eta institutuak urte hauetan guztietan eman duen zerbitzua goraipatu ondoren, Josunek 50. Urteurrena ospatzeko antolatu diren jardueren programa aurkeztu zuen. Bereziki azpimarratu nahi da, egitarauaren protagonista nagusiak institutuko ikasle izandakoak direla.

Amaitzeko, Josu Agirrek “Beasain Institutua 1968-2018 goierritarren zerbitzura” liburuaren aurkezpena egin zuen. Liburu honetan, argazki ugari lagundurik, institutuaren lehena eta oraina biltzen da; guztia, etorkizun oparoaren oinarri eta abiapuntu.